

txi kitto!

Aparteko idazleak





Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri, Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta Eibarko ikastetxeetako
ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa

Maidar Aranberri eta Ekhi Belar.

Maketazioa

Ana Aizpurua.

Azaleko argazkia

Ainhoa Luz.

Banaketa arduraduna

Ainhoa Luz.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96



LH eta DBHko Ipuin Lehiaketa

XXIV. Ipurterre 2018

... eta kitto! Euskara Elkartek Ipurterre Ipuin Lehiaketaren XXIV. Edizioa antolatu du, Eibarko ikastetxeekin elkarlanean. LH eta DBHko ikasleei zuzendutako lehiaketan aurtan ere lan bikaina egin duzue Eibarko ikasleek, eta 1.000 lan inguru jaso ditugu. Epaimahaiarentzat ez da erraza izan lanak aukeratzea, ikasleek erakutsi duzuen maila altua izan da-eta.

Irabazleei zoriontzeaz gainera, parte hartu duzuen guztiei ere gure eskerrik beroena helarazi nahi dizuegu, eta idazten eta irakurtzen jarraitzera animatzen zaituztegu, Eibarren dugun harrobi ederra handitzen joan dadin.

Datozen orrialdeotan dituzue aurtengo ipuin eta gutun irabazleak. Zabaldu orriak eta gozatu!



Ipurterterre 2018

LH eta DBHko Ipuin Lehiaketa



Pepito ipar poloan

Bazen behin mutil bat Pepito deitzen zena. Bere gurasoekin bidaia batean zegoen Ipar Poloan. Txango hartan hartz txuri batekin topatu ziren; erraldoia zen eta oso indartsua eta gose handia zeukan baina aitak arraina atera zuen eta arraina hartzari

bota zion. Orduan, hartza despistatu egin zen eta Pepito, aita eta ama korriketan joan ziren ihes egiteko. Bat-batean iglu bat topatu zuten. Inuiten familia bat bizi zen hor eta iglura sartzen laga zieten inuitek. Ziren ama, amama, eta bere alabatxo Kuki. Pepito eta bere gurasoak iglu barruan harrituta geratu ziren iglu barruan ez zegoelako hotzik ... Gainera ipar-poloko zopa probatu zuten. Oso lagunak egin ziren eta Pepito eta gurasoek inuiteri gonbidatu zieten bere etxera oporretan ezagutzeko gure kultura, janaria eta ohiturak.



LH1

LH2

Ixone Bilbao Gonzalez
Aldatze ikastetxea

Minbiziaren kontrako botikak

Bazen behin neska bat Iria deitzen zena. Bere aititerekin gauza asko egiten zituena: mendira joan, izkutaketara jolastu... Bata besteari "txintxe" deitzen zioten adarra jotzea gustatzen zitzaielako. Iriak ikaragarri maite zuen aitite. Baina behin gaixotu egin zen, minbizia zuela esan zioten.

Iriak jakin zuenean oso triste eta haserre jarri zen. Bere amari galdetzen zion zein zen botika aitite sendatzeko. Bere amak ez zegoela botikarik azaldu zion baina Iriak ez zuen ulertzen.

Gau horretan ametsetan egon zen aitite nola sendatu ahal zen pentsatzen.

Amets horretan laborategi batean lan egiteko ikasketak egin zituen eta ikasketak bukatzean minbiziaren aurkako botika asko asmatu zituen.

Esnatzean, hurrengo egunean, eskola bukatu eta gero ospitalera joan zen, eta aititeri zin egin zion minbiziaren kontrako botikak asmatuko zituela.

Iria, eskola amaitzen zuenean, aititerengana joaten zen bisitatzera baina zoritxarrez, aitite hil egin zen.

Aititeri esan zion moduan, Unibertsitatera joan eta laborategi batean lanean hasi zen. Botikak desberdinak asmatu zituen minbiziaren kontra.

Oraindik ez du aurkitu minbizia guztiz sendatzen duen botika baina ez du etsiko, ikertzen eta ikertzen jarraituko du aititeri esandako hitza betetzeko.



LH3

LH4

Irene Alonso Bravo
La Salle Isasi ikastetxea





LH5

LH6

Jone Aldai Lorente
J.A. Mogel ikastola

Gutuna

Kaixo, oihaneko animalia guztiei:

Zein egun ederra egiten duen gaur, ehh ? Ba... hain zuzen ere, horri buruz hitz egin nahiko nuke zuekin, baina ez dudanez zuekin aurrez-aurre hitz egiteko aukerarik, gutun honen bidez egitea erabaki dut.

Dakizuenez, nire inguruko belardia oso zabala eta argitsua da. Nire ingurura hurbiltzen zareten bakoitzean, belar piskat hartu eta azkar batean ihes egiten duzue. Hurbiltzen zaretenean oso pozik jartzen naiz, baina joaten zaretenean betiko sentimendua etortzen zait burura, bakardadea. Beti bakarrik nago, badakit oso, oso, oso usain txarra dudala, baina ez dago ni bezalako lore ederrik. Kolore urdineko lore xarmangarri bat naiz.

Ez dut inorekin hitz egiteko aukerarik izaten eta uste dut, izaera polita dudala. Haserretzen naizenean azkar batean pasatzen zait, beno ez dakit zergaitik baina kontua da, aukera bat ematea eskatu nahi dizuedala.

Asko gustatuko litzaidake egunen batean nirekin hitz egingo bazenute.

Bihotz, bihotzez Lore Usaintsua

Gutun hau oihaneko erregeei heldu zitzaien (lehoiei). Bertako animalia guztiei esan zieten, baina kasurik ez egitea pentsatu zuten. Han egon ziren animalia guztiak egunak eta egunak kasurik egin gabe. Lore Usaintsuak esperantza pixka bat eduki zuen arren galdu zuen esperantza hura, zer egin ez zekienez, betiko bizimodura bueltatzea erabaki zuen.

Egun batean, lehoi txiki bat hurbildu zitzaion ingurura, eta berarekin hitz egiten hasi zen.

Lehoi txikiari, lorearen gutunaren berri eman ziotela eta inork ez zuela kasurik egitea pentsatu, esan zion. Orduan, ulertu zuen loreak, zergatik ez zitzaion animaliarik ingurura joan. Azkar batean, ia lorearen usaina jasanezina, bere ama gaixorik zegoelako, oso triste zegoela esan eta bat batean alaitu egin zen.

Hurrengo egunean, animalia ugari hurbildu zitzaizkion, ez zekien zergatik, baina, aurreko eguneko lehoiak argitu zion zalantza. Lehoi txikiak zioenez,





"Guztiak berarekin hitz egiten
hasi ziren, pixkanaka-pixkanaka,
lorearen usainera ohitzen joan
ziren"



aurreko egunean lorearekin hitz egin eta gero, oihaneko beste animalia guztiekin hitz egitera joan omen zen, eta berarekin hitz egindako guztia kontatu omen zien, baita lehoiari gertutako gauza harrigarri hura ere, bere tristura kontatu eta alaitu zela.

Lore Usaintsua poztu egin zen horrenbeste animalia bere inguruan ikusita. Guztiak berarekin hitz egiten hasi ziren, pixkanaka-pixkanaka, lorearen usainera ohitzen joan ziren. Animalia batzuk euren tristurak eta haserreak kontatu zituzten, eta guztiei berdina gertatzen zitzaien.

Kontatu orduko, alaitu eta euren tristura edo haserrea hobeto bideratzen zuten. Denborarekin, lorearen kirats horrek tristura, haserre edo sentimendu txar guztiak kentzen zituela konturatu ziren.

Egun hortatik aurrera, egunero-egunero animaliaen bat joaten zen berarengana. Eguzkia hartzera, belarra jatera, edota berarekin egun osoa pasatzera. Horregatik, lore usaintsuak gutun bat idatzi zien esker onak emanez.

kaixo, (berriro ere) oihaneko animalia guztiei:

Eskerrik asko eman didazuen aukeragatik. Batez ere lehoi txikiari, zuk eraman ninduzun bizitza liluragarri hau bizitzera. Orain beti lagunez inguraturik nago. Eskerrik asko eman didazuen maitasunagatik.

Bihotz, bihotzez LORE USAINTSUA





Ipurterterre 2018

LH eta DBHko Ipuin Lehiaketa



DBH1

DBH2

Leire Martin Etxaniz
Mogel Isasi DBH1

Gure kuadrilan ez da euskaraz hitz egiten

Azkenaldi honetan kezkatuta nago, laguneren artean ez baikara euskaraz mintzatzen. Ikasturte honetan neskatila kanpotar bat etorri da gure gelara eta asteburuetan gure kuadrilarekin irteten da. Joera desegokia hartu dugu, berarekin euskaraz aritu beharrean, gaztelera egiten diogu eta modu honetan ez du inoiz ikasiko.

Egun osoan jo eta ke gabiltza, ez bakarrik berarekin, baita gure artean ere, aitzakia bezala hartuta berak euskara ez dakiela. Berarentzat askoz ere errezagoa da badakien hizkuntza baten mintzatzea, baina guk euskaraz egingo bagenio segituan ikasiko luke.

Erosoena da ez dakiela aitzakiatzat hartzea, baina hori ez da egiazko arrazoia, euskaraz ez hitz egiteko. Niretzako oso esanguratsua den adibide bat ipiniko dizut.

Nire amona Mercedes kanpotik etorri zen Eibarrera 60. hamarkadan lan egitera eta berak naturaltasunez, Euskaltegira joan gabe, lortu zuen euskara ikastea. Nola? Garai hartako anekdota asko kontatzen dizkit. Hasiera batean gaizki pasatzen zuen eibartarrek berarentzat arrotza zen hizkuntza batean hitz egiten ziotelako. Behin, heldu berri zegoela etxeko atea jo zioten. Zabaltzean “Arratsade On!” esan zioten eta berak erantzun zuen ”perdone , se ha confundido, ese señor no vive aqui”. Beste egun batean, Untzagako plazan dantzaldia zegoela, gaur egun nire aitona den gizona hurbildu eta dantza egiteko eskatu zion “mesedez” hitza esanez. Nire amona kuttunak erantzun zion “mesedez no, me llamo Mercedes.”



Horrela, egunez egun, eibartar guztiak lehenengo hitza euskaraz ematen ziotenez, poliki-poliki euskara ikasten joan zen. Gaur egun euskaldunduta dago eta guztiz eibartar sentitzen da. Bere euskara ez da perfektua, baina azken finean, euskararik txarrena erabiltzen ez den euskara da.

Nire kuadrilan gertatzen ari den egoerari aurre egiteko , nire amonari egin zioten bezala , euskaraz hitz egin beharko genioke lagun horri. Horrela ez da gehiago kanpotar izango, gutako bat sentituko da eta gure hizkuntza erabiliko du. Imanak burdina erakartzen duen bezala, euskarak pertsonak erakartzeko indarra gu gara, gaur egungo euskal hiztunak. Joxean Artzek esan zuen bezala: **”Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik”**.

Espero dut hurrengo gutunean kontatzea nire kuadrilan euskara ez dagoela bakarrik gure bihotzetan baizik eta gure ezpainetan ere.

Hurrengora arte!



DBH3

DBH4

Maialen Gonzalez Adam
La Salle Isasi



Gure kuadrilan ez da euskaraz hitz egiten

Kaixo Maria:

Badakizu gure kuadrilan ez dela euskara erabiltzen. Imajina ezazu herri txiki bat. Herri honen bihotza iturri bat da, iturri zaharra eta polita.

Herria iturriaren inguruan eraikita dago, txikia da, baina herri bakarra da. Etxebizitza berriak eraiki dira, baina bizitza guztia daramaten etxeak ere daude, noski.

Horietako etxe askoren hondakinak bakarrik ikusten dira, beste gehienak jausteko zorian daude, baina han jarraitzen dute, zutik euria, tximistak, elurra eta beroari aurre egin eta gero. Etxe berriak eraiki dira, herria apaintzeko, herria bizirik irauteko. Eraikin berriaren jabeek ez dute euren etxea egoera kaskarretan ikustea nahi, horregatik ondo zaintzen dute, egoera onean egoteaz arduratzen dira.

Herriko iturriak etxe guztiak elkartzen ditu. Herriaren bihotza delako, herritar guztiak, gazteak nahiz zaharrak, iturriaren inguruan eta iturria ikusten hazi direlako.



Iturria ez al da euskara? Euskaldun guztiok euskara barnean daramagu, hitz egin edo ez. Euskara gure bihotzean dago.

Orain, Maria, pentsa ezazu. Etxe batzuk jausi dira, euskaraz hitz egiten pertsonak direla jo dezagun. Amore eman zuten pertsonak direla imajinatu, euskaraz hitz egiteari utzi ziotenak. Etxe horietako asko ez dira inoiz berreraikiko, baina beste batzuk bai.

Beste etxe batzuk jausteko zorian daude, baina zutik jarraitzen dute. Ez dira hauek amore emango ez duten pertsonak? Jende askok ez dio euskaraz hitz egiteari utziko, gure hizkuntza maite dutelako.

Eta etxe berriak eraiki dira, pertsona askok euskara desagertzeko zorian egon zela ikusita hau hitz egitera animatu ziren. Baina orduan gure hizkuntza maitea hitz egiteko zergatik ditugu hainbeste arazo?

Etxeak zaintzea kostatzen du, baina benetan maite badugu, edozer gauza egiteko gai gara. Gure lana izango da etxeak zaintzea, eta beste asko eraikitzea. Eta orain, gure artean euskaraz hitz egiteko gai izango garela uste duzu?



Maiatzaren 16an banatu genituen aurtengo Ipurterre Ipuin Lehiaketako sariak, Hezkuntza Esparruan. Zelako pozik jaso zituzten euren sariak irabazleek eta zelako gogoarekin animatu zieten ikaskideek!

Gainera, aurten berriz ere jaso dugu Tor magoaren bisita eta ume zein helduak aho zabalik utzi zituen bere trikimailuekin.





IPURTERRE sari banaketa

Aurtengo irabazleak hauetxek izan dira:

Ixone Bilbao Gonzalez (LH 1-2, Aldatze ikastetxea)


Irene Alonso Bravo (LH 3-4, La Salle Isasi ikastetxea)

Jone Aldai Lorente (LH 5-6, J.A. Mogel Ikastola)

Leire Martin Etxaniz (DBH 1-2, Mogel Isasi BHI)

Maialen Gonzalez Adam (DBH 3-4, La Salle Azitain)





OSTADAR LIKIDOA

Esperimentu bitxi bat proposatu nahi dizuegu oraingoan. Hainbat koloretako likidoak sartuko ditugu pote batean, ostadarra irudikatuz, baina ez dira euren artean nahastuko. Zergatik? Likido lodiek gehiago pisatzen dute eta beraz, behean geldituko dira. Arinenak, berriz, goian. Gainera, dentsitate ezberdina izaterakoan likidoak ez dira nahasten eta ostadar polita irtengo zaizue.



MATERIALA

- ✓ Kristalezko pote 1
- ✓ Eztia
- ✓ Ontzi-detergente berdea
- ✓ Oliba-olioa
- ✓ Ura
- ✓ Alkohola
- ✓ Elikagai-koloratzailea
- ✓ Tantz tantakoa

PAUSOAK

- 1.- Eztia isuri pote barruan (aldeak ikutu gabe) eta ondoren gehitu ontzi-detergente berdea.
- 2.- Nahastu ura elikagai-koloratzailearekin (urdina edo morea, adibidez) eta isuri detergentearen gainean kontu handiarekin aldeak ikutu gabe.
- 3.- Gehitu oliba-olio geruza potolo bat, ontziaren erdialdean.
- 4.- Azkenik, nahastu alkohola elikagai-koloretzaile gorriarekin, baina kontuz! Ez irudi aurrekoak bezala erdiko aldean. Hori egiten baduzue alkoholak olio-geruza zulatu eta urdinez edo morez tindatutako ura harrapatuko eta ostadarra hondatuko du. Hori gerta ez dadin erabili tantaz tantako bat alkohola pote barruan botatzeko.



GOXOKI-POLTSAK

Goxoki edo karamelu txikiz bete poltsatxo bat. Erditik arropak eskegitzeko pintza bat jarri eta itsasi pintzari aurpegitxo bat eta antenak, eta hortxe, tximeleta itxurako goxoki-poltsa dibertigarria.



GOZOKI-OSTADARRA

Eskulanetan egin dugun bezala, atal honetan ere ostadarra egingo dugu, baina oraingoan jaketkoa, noski. Jarraitu pausoak eta gozokizko ostadar bikaina dastatuko duzue.



OSAGAIK (4 LAGUNENTZAT):

- ✓ 3 katilu txokolate txuri (zatitxoetan moztuta)
- ✓ lata bat esne kondentsatu
- ✓ Elikagai-koloratzailea



PAUSOAK

- 1.- Laberako 20 x 20 cm neurriko kristalezko ontzi baten oinarrian eta ertzetan aluminiozko papera jarri.
- 2.- Banatu esne kondentsatua 5 ontzi txikitan, mikrouhin labean sartzeko modukoak. Gutxi gorabehera taza erdi ontzi bakoitzeko.
- 3.- Postrearen oinarria egiteko lehenengo geruza morea egingo dugu. Horretarako 6 txokolate txuri ontza esne kondentsatua duen ontzi batean gehitu eta berotu mikrouhin lanean minutu batez. Gehitu $\frac{1}{4}$ koilarakada bainilla, eta 4 tanta koloratzaile gorri eta 6 urdin. Ondo nahastu.
- 4.- Kolore morea kristalezko ontzira isuri eta mugitu alde batetik bestera ondo zabal dadin. Hozkailuan utzi, gutxienez 15 minutuz, edo gogortu arte.
- 5.- Gauza bera egingo dugu, oraingoan kolore urdinarekin. Eta horrela geruza berdea, horia eta gorria egiteko. Bata bestearen gainean jartzen joango gara, bakoitzerako 15 minutuko tartea utziz, hozkailuan.
- 6.- Behin geruza guztiak egin eta gero hozten utziko ditugu, gutxienez 12 orduz, eta listo! Moztu irudian bezala eta gozatu!

MINI-PIZZAK

Magdalenak egiteko moldeetan sartu pita-ogia edo tortilla mexikarrak. Jarri gainean nahi dituzuen osagaiak: gazta, tomatea, txorizoa, txanpiak... nahi duzuenak. Sartu labean eta listo! Hor dituzue mini-pizza gozo-gozoak!






AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **Ainhoa Egurrola** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. ...eta kitto!-ren kamiseta eta liburu dibertigarri bat eraman ditu Ainhoak etxera. Zorionak!



7 desberdintasunak



**BIDALI ERANTZUNAK EKAINAK 7 BAINO LEHEN.
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA.** Urkizu 11. Eibar.

Izen-abizena

AdinaTel.....



Gu ere tantan!

Euskeraren aldeko olatua

Eibarrera ailegatu zitzaigun, eta tantanez tantan, eibartarrok, euskeraz bizi nahi dugula ohikatu genuen lau haizetara.

Urkusuko iturritik Untzagaraino, eskutik eskura pasatu genion elkarri euskeraren gantxila, olatua irudikatuz. Ume, gazte, heldu eta zahar, ehundaka lagun euskeraren alde.

Ez zen tarterik gelditu jende gabe.

Baina gogoratu, ez dela egun bakarreko kontua, urteko 365 egunetan erabili behar dugula euskera!









zu margolari!